




San Telmo basiliza,
Marianton Puntako
labarrarekin

Sakonetako ingurua

Labar malkartsuak



Zumaia Talaimendi eta Amesmendi hegalen artean dago, Urola ibaiaren bokalean. Mendia, ibaia eta itsasoa bateratzen dira herri honen paisaian; bere arkitektura ere oso bestelakoa da barnekaldeko herriekin alderatuz gero. Bere ateetako ezkutu heraldikoak edo ateburuak apaintzen dituzten motiboei erreparatu behar zaie. Zumaia bertatik pasatzen zen Santiago Bideko ibilbideetarik baten arrastoak gordetzen ditu, Irundik zetorren eta Kantauriko kosta zeharkatzen zuen Kostako Bidearen arrastoak.

GR 121aren zati hori bere balio geologikoengatik nabarmentzen da. Bere labarrak fenomeno berezi baten gainean daude, marearteko zabalgunearen gainean. "Marearteko zabalgunea" edo "urradura plataforma" hori kostako lerroan olatuek labarretan eragindako erosioak sortutako azalera txikia da. Itsasbeherarekin marearteko zabalgunea azalerara ateratzen da bere biodibersitate aberatsarekin.

Marearteko zabalgunearen gainean altxatzen dira Zumaiaiko labarrak. Sakoneta eta Mendatako guneetan aurki daitezke malkartsuenak. Elorriagan Itziarrera iristen den PR batekin bat egiten du ondoren Debara jaisteko. Bi ibilbideek bat egiten dute Sakonetaraino eta bertan Elorriagarantz abiatzen da.



'FLYSCH'

Hondartza, Sakoeta Punta eta itsasbeherarekin ikus daitekeen marearteko zabalgunea


Paisaia aldatu egiten da ondoren insignis pinuaren sailekin. Debako auzo bat den Itxaspetik Santa Katalinako basilizara iristen da eta pena merezi du bertan une batez geratzea kostari begirada bat botatzeko. Egun argietan ikuspegi Bizkaiko kostako zati handi bat ikusteko modukoa izaten da.

Zumaiaiko labarrek "flysch" izen teknikoa hartzen dute. Geruzen sekuentziak dira, milorri izugarri baten moduan, non material gogorreko geruzak (kalizak eta hareharriak) material bigunekoekin (tuparriak eta harri buztintsuak) tartekatzen diren. Kretazeoan zeharreko lur-mugimenduek jatorrian horizontalak ziren geruza horiek antolamendu bertikala hartzea eragin zuten. "Flysch"aren orriak itsasoan sartzen dira interes geologikoa izateaz gain oso ederra den saiheskia bezala.



FITXA TEKNIKOA

Iraupena: 3h 40min
Longitueda: 14 km.
Zailtasuna: Ertaina
Desnibela: 183 m.



Nola iritsi:
Zumaiaara kostako errepidetik (N-634), A-8 autopistatik (Arronako iteera) edo trenz (Euskotren) ere irits zaitezke.

IBILBIDEAREN SEINALEZTAPENA

- Ibilbidearen jarraitasuna
- Okerreko norabidea
- Norabide aldaketa
- Deba 1h 20'

TOPOGIDA

	Distantzia (metroak)	Altitudea (metroak)	Deskribapena
1	0	5	Ibilbidea plazan hasi. Kaleetan barrena Itzurungo hondartzako labarraren gainean bakarti dagoen San Telmo baselizaraino igo behar duzu.
2	800	17	
3	2.100	50	Urautsietara iristeko pixka bat behera egin ondoren altuera pixka bat hartu behar duzu bidexka estu batetik, betiere itsasoaren ikuspegi bikainarekin. Modu horretan errepide batera eta Andika baserrietara iritsiko zara.
4	4.400	110	Jarraitu pistan Etarteko muinora bitarte. Galarretako zabalera iritsi ondoren Elorriagako gunean sartuko zara. Metro gutxi egin ondoren izen bereko auzoan egongo zara eta leku horretatik bertatik hasten da Debara iristen den GR-Gi 46.
5	7.700	30	Auzoa zure bizkarren utzi mendi-bide bat jarraituz. Beherantz egingo duzu Txokategaineraino eta Sorazumendiko kotaraino doan ibarrarantz. Pistak Arantzagoikoa eta Behekoa baserrietara eramango zaitu eta ondoren Errotaberri eta Sakoneta errekaetara.

	Distantzia (metroak)	Altitudea (metroak)	Deskribapena
6	8.600	50	Sakoneta, nahasketa sortu dezakeen bidegurutze bat da. Ubide gaineko egurrezko zubiak bidearen markak dauka. Lehenengo igo eta gero jaitsi egiten den bidea da, trenbidea eskumatara utziz. Tunnel gainetik abiatuz porlanezko bide batetara iritsiko zara.
7	10.000	90	Aldapa bukatutakoan eta metalezko ate baten ostean, marrek, bidea eskumatarantz eta beherantz desbideratzen dela adierazten dute, igoera eta jaitsiera lasaiak dituen arbola artetik igarotzen den eta porlanezko pista batetan amaitzen den bidexka batetatik. Marrei kasu egin ez, eskumatara egingo dugu bira.
8	12.800	188	Pista utzi eta araztaile bat dagoen lekura eramaten duen bidexka bat hartuko duzu. Araztailearen atzeko aldetik pasatu. Bidexka hori Debara jaisten den errepideraino igotzen da. 10 bat metro gorago eta kontrako aldean, marka batek, Santa Katalina ermitara joateko igoera adierazten du.
9	13.200	9	Hortik gertu Debara igotzen den PR-Gi 44 ibilbidearekin bat egingo duzu. Beherako bidea Ardatzetik egiten da Deban amaitzeko.